


Celta-Alaves (Espainiako Ligako 32. jardunaldia)

Celta

Entrenatzailea: VICTOR FERNANDEZ



		Jok.	Ira.	Ber.	Gal.	
Sailkapena	5.	Etxean	16	8	5	3
Puntuak	51	Kanpoan	15	5	7	3



Aulkian: Pinto, Giovanella, Maurice, Doriva, Coira, Edu, Juanfran, Yago.

PPV



21:00

Balaidos
(31.800 ikusle)

Mejia Davila

Azken bost denboraldietako emaitzak

2000-01 1-1 / 1999-00 1-1 / 1998-99 1-1 / 1997-98 - / 1996-97 -

Partidako datua

Celta gol bolada bikainean dago. Azken hiru partidetan hamahiru gol sartu dituzte aurrelari galiziarrek.

Partidako protagonista



Martin Herrera. Alavesen atea azpira itzuliko da, aurreko partidari Kikek sudurra hautsi zuelako.

Partidako esaldia

"Kaioari atsedena emateko ordua da. Golak ospatzeko dudak modu hori oso ezaguna da eta oroitzapenak ditut, baina golak beste modu batera ospatzeko gogoak dut orain" (Catanha, Celta jokalaria).

Alaves

Entrenatzailea: JOSE MANUEL ESNAL 'MANE'



		Jok.	Ira.	Ber.	Gal.	
Sailkapena	8.	Etxean	16	8	1	7
Puntuak	45	Kanpoan	15	6	2	7



Aulkian: Juan Pablo, Lombardi, Turiel, Witschge, Brandan, Vucko, Alonso.

ESPAINIAKO LIGAK



PARTIDAK ETA SAILKAPENAK

LEHEN MAILA
32. JARDUNALDIA

Celta	-	Alaves
Bartzelona	-	Las Palmas
Vila-real	-	Athletic
Zaragoza	-	Valladolid
Sevilla	-	Real Madril
Rayo	-	Betis
Osasuna	-	Malaga
Mallorca	-	Espanyol
Tenerife	-	Valentzia
Reala	-	Deportivo

SAILKAPENA

1.	▲ Real Madril	56	+17
2.	▲ Valentzia	56	+13
3.	▲ Deportivo	54	+12
4.	▲ Betis	51	+9
5.	■ Celta	51	+19
6.	■ Bartzelona	50	+21
7.	Athletic	48	-5
8.	Alaves	45	0
9.	Malaga	42	-2
10.	Espanyol	41	-6
11.	Valladolid	40	-14
12.	Sevilla	39	+7
13.	Reala	36	-5
14.	Las Palmas	36	-6
15.	Vila-real	34	-7
16.	Osasuna	34	-12
17.	Mallorca	34	-7
18.	▼ Zaragoza	33	-16
19.	▼ Rayo	33	-11
20.	▼ Tenerife	32	-17

BIGARREN A MAILA
34. JARDUNALDIA

Leganes	-	Ferrol
Levante	-	Eibar
Salamanca	-	Jaen
Huelva	-	Burgos
Sporting	-	Racing
Badajoz	-	Extremadura
Numancia	-	Oviedo
Albacete	-	Gimnastic
Kordoba	-	Ejido
Elx	-	At. Madril
Murtzia	-	Xerez

SAILKAPENA

1.	▲ At. Madril	64	+24
2.	▲ Xerez	59	+5
3.	▲ Huelva	55	+9
4.	Racing	53	+11
5.	Oviedo	50	+9
6.	Sporting	47	+5
7.	Albacete	47	+5
8.	Ferrol	47	+4
9.	Kordoba	46	+2
10.	Elx	46	+2
11.	Salamanca	44	+1
12.	Eibar	43	+10
13.	Burgos	43	-3
14.	Badajoz	42	-6
15.	Murtzia	39	-4
16.	Leganes	39	-7
17.	Numancia	38	-11
18.	Extremadura	36	-7
19.	▼ Jaen	35	-16
20.	▼ Gimnastic	34	-8
21.	▼ Ejido	34	-12
22.	▼ Levante	34	-15

Aurrelariak harrapatzeko sarea

Baliteke Manek bihar hiru zentral zelairatzea Celtaren azken jardunaldietako gol bolada eteteko

Erredakzioa | GASTEIZ

Aurreko jardunaldian sei gol sartu zituen aurkari baten aurka jokatzeko ez da erraza, eta Alavesek bihar Celtaren aurka zailtasun ugari izango ditu UEFAko trena ez galtzeko. Arabarrek hiru puntura dituzte Europarako postuak, Athleticen aurka galdutako morala Espanyolen aurka bost minututan berreskuratu ondoren. Aurkaria ere, ordea, ez dabil batere makal eta oso gol bolada onean aurkitzen da. Horri aurre egiteko edo, Mane Alaveseko entrenatzaileak orain arte ikusi gabeko hamaikako bat zelaira dezake Balaidos futbol zelaietan. Asteazkenean zehar lan saioetan ikusitakoaren arabera denboraldi honetan lehenengo aldiz baliteke Manek hiru zentral zelairatzea: Coloccini eskuinetik, Karmona erdetik eta Tellez ezkerretik. Gelik eta Llorensek bost atzelariko lerroa osatuko lukete sistema horretan, eta horrela Celtak azken partidetan golak sartzeko erakutsi duen erraztasuna mozten saiatuko da Mane.

Baina Celtak Athleticen sei gol egin bazizkion ere, eta Alavesek bost atzelarirekin joka badezake ere, ez dirudi Mane ikararuta dagoenik. «Onenen artean onenaren aurka lehiatu behar dugula dirudi, eta ez da hainbesterako», esan zuen entrenatzaileak atzo entrenamenduan ostean. Alavesek bihar irabaztea ia derrigorrezkoa du UEFArekin amesten jarraitu nahi badu. Deportivo Txapel-dunen Ligarako sailkatzen bada, zazpigarrena UEFARA joango da, eta une honetan Alavesek hiru puntura du postu horretan dagoen taldea, Athletic. Aste honetan Celtaz asko hitz egin den arren, galiziarrek aurretik sei puntura bakarrik dituztela gogorarazi zuen atzo



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Carlos Llorens luzaketak egiten Ibaian herenegun, aldamenean Ondarru duela

MANE

Alaveseko entrenatzailea

«Onenen artean onenaren aurka lehiatu behar dugula dirudi, eta ez da hainbesterako»

«Futbol polita egiten du Celtak, baina guk ere zer edo zer jokatzeko dugu»

Manek. «Celta futbol polita egiten ari da, eta golarekin asmatzen ari da, baina Alavesek ere zerbaitera jokatzeko du», gaineratu zuen Balmasedako entrenatzaileak.

Tellez aurreko jardunaldian zigortuta egon zen, eta orain atzeko lerroan sartzeko Ibon Begoñak utzitako lekua aprobeztatuko du Manek, bilbotarrak partida bateko zigorra bete behar baitu. Espanyolen aurka zelairatutako taldearekin aldera-

tuta hori izango da Manek egingo dituen bi aldaketetako bat. Bestea Pablarena izango da. Gasteiztarrak Turielen postua hartuko du euskarri bikoitzean. Gola kontraerasoen bidez bilatuko du bihar Alavesek, eta horretarako Mara, Magno eta Cruyff zelairatuko ditu Manek. Navarro ez dago oraindik sorbaldan duen lesiotik guztiz osatuta, eta ondorioz Alaves punta garbirik gabe zelairatuko da, Alonso aulkian geratuko baita.